

d) Ingurunearekin elkarreraginean aritzea

1. maila: Oinarrizkoa

Ez du oso ondo ezagutzen ikasleek etxean duten egoera, ezta beren testuinguru sozial eta kulturala ere. Ez ditu ezagutzen ikastetxearen inguruneak eman ditzakeen baliabideak.

2. maila: Garatze bidean

Ikasleek etxean duten egoera eta beren testuinguru sozial eta kulturala ezagutzen ditu, eta aintzat hartzen ditu irakaskuntza-ikaskuntza prozesua planifikatzean eta ikastetxeko beste jarduera batzuetan.

Ikastetxearen ingurunean dauden komunitateko baliabideak erabiltzen ditu bere irakaskuntza-lana garatu eta hobetzeko.

3. maila: Garatua

Ikasleek etxean duten egoerari eta beren testuinguru sozial eta kulturalari buruz duen ezagutza erabiltzen du irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aberasteko, ikastetxearen funtzionamendua hobetzeko eta ezarritako helburuak betetzeko lagungarriak izango diren aliantzak sortzeko.

4. maila: Aurreratua

Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Komunitateko baliabide ezberdinen erabilera sustatzen du.

Erakunde eta elkarte ezberdinen esku-hartze plan partekatuak sortu, planifikatu, kudeatu eta koordinatzen ditu, hezkuntza hobetzeko proiektu komuna oinarritzat hartuta.